

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

5244

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 9koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, lankidetz-erakundeei laguntzak ematea ebazten duena, 2023. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolaketa aldatzeko prozesuak sustatzeko.

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuak (2018ko apirilaren 9ko EHAA, 181. zk.) lankidetz-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeotan genero-berdintasunaren aldeko antolaketa aldatzeko prozesuak sustatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2023ko uztailaren 26ko Ebazpenaren bidez (2023ko abuztuaren 28ko EHAA, 163. zk.), lankidetz-erakundeei laguntzak emateko deialdia egin zen, 2023. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak sustatzeko.

Aipatutako deialdi-ebazpenaren 5. artikulua horretarako izendatu duen hautaketa-batzordeak laguntzak emateko egin duen proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinazio Teknikoko Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinean ageri diren erakundeei ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2023ko uztailaren 26ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak, eranskin horretan aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea erakunde interesdunei.

Hirugarrena.– Agintzea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, herritar oro jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela esan nahiko du, eta zabalik geratuko da administrazioarekiko auzien bidea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 9a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2023ko azaroaren 22a, asteazkena

ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Helburua	Espedientea	Erakunde eskatzailea	Puntuak	Dirulaguntza
Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	GBA-2023BA/0004	Asociación Aldarte Centro de Atención a Gays y Lesbianas	84,00	40.906,50 €
Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	GBA-2023BA/0011	Fundación Proclade Yanapay	80,00	38.114,29 €
Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	GBA-2023BA/0003	Gemika Gogoratuz	79,50	40.893,02 €
Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	GBA-2023BA/0009	Ingeniería Sin Fronteras del País Vasco	78,50	41.268,27 €
Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	GBA-2023BA/0005	Farmacéuticos Mundi	76,50	33.749,14 €
Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	GBA-2023BA/0006	Asamblea de Cooperación por la Paz	74,00	38.100,10 €
Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	GBA-2023BA/0001	Asociación Cultural Ikertze	65,32	22.433,25 €
Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	GBA-2023BA/0002	Setem Hego-Haizea	73,00	16.000,00 €
Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa	GBA-2023BA/0008	Asociación Hegoa Instituto de estudios sobre desarrollo y cooperación	90,50	40.000,00 €
Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa	GBA-2023BA/0007	Asociación Zehar-Errefuxiatuekin	73,00	38.869,60 €
Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa	GBA-2023BA/0010	Fundación Paz y Solidaridad Euskadi	50,50	32.986,82 €